

JUVINTUD. LAN DUINAREN ALDEKO NAZIOARTEKO KANPAINA, MIGRAZIOEN IKUSPEGITIK

PROIEKTUAREN EMAITZEN TXOSTENA



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-nafarroa





paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-nafarroa

Bakea eta Elkartasuna Fundazioa Nafarroa

www.fpsnavarra.org

Esker mila kanpaina diseinatzen aritu diren gazteei: Unai Álava, Daniela Alcocer, Guillermo Bergantiños, Carlos de la Torre-Verdejo, Johanna Flores, Ander Gómez, Saúl Iráizoz, Mónica Marín y Mario Román.

Lege-gordailua: XXXXXXXXXXXXX

JUVINTUD.
LAN DUINAREN ALDEKO
NAZIOARTEKO KANPAINA,
MIGRAZIOEN
IKUSPEGITIK

PROIEKTUAREN EMAITZEN TXOSTENA





1

BAKEA ETA ELKARTASUNA FUNDAZIOA NAFARROA

Bakea eta Elkartasuna Fundazioa Gobernuz kanpoko erakundea (GKE) da, eta haren helburua da garapenerako kooperazioa sustatzea. Comisiones Obreras sindikatuaren ekimenetik sortu zen 1999 urtean. Erakunde independentea, anitza eta laikoa da. Era berean, gizartearen eta ekonomiaren eraldaketarekin konprometitua dago eta garapen-eredu humanoago, justuago, bidezkoago, demokratiko eta jasangarri baten alde lan egiten du.

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK

1 POBREZIAREN
AMAIERA



2 GOSERIK EZ



3 OSASUNA ETA
ONGIZATEA



4 KALITATEZKO
HEZKUNTZA



5 GENERO
BERDINTASUNA



6 UR GARBIA ETA
SANEAMENDUA



7 ENERGIA
IRISGARRIA ETA
EZ KUTSAGARRIA



8 LAN DUINA ETA
HAZKUNDE
EKONOMIKOA



9 INDUSTRIA,
BERRIKUNTZA
ETA AZPIEGITURA



10 DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEA



11 HIRI ETA
KOMUNITATE
JASANGARRIAK



12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK



13 KLIMAREN
ALDEKO
EKINTZA



14 ITSASPEKO
BIZITZA



15 LEHORREKO
EKOSISTEMAKO
BIZITZA



16 BAKEA, JUSTIZIA
ETA INSTITUZIOA
SENDUAK



17 HELBURUAK
LORTZEKO
ITUNAK





2030 AGENDA: BAKEA ETA ELKARTASUNA FUNDAZIOAREN ARDATZ NAGUSIA

Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda mundu mailako ekintza-plana da, zeinak nazioarteko garapenerako lehentasunak zehazten baititu, eta Nazio Batuetan onartu zuten 193 herrialdek baino gehiagok 2015eko irailean. Agenda honek 17 helburu ditu, Garapen Jasangarrirako Helburuak izenez ezagunak (aurrerantzean GJH). Agendak 169 helburu zehatz ditu, baita horietako bakoitzarentzako adierazleak ere. Horien bitartez, helburu orokorrak lortze bidean egindako lana baloratu daiteke.

AGENDA 2030: EJE VERTEBRADOR

Indarrean jarri zutenetik, Bakea eta Elkartasuna Fundazioaren ekintzen ardatz nagusietako bat izan da 2030 Agenda. Izan ere, mundu mailako ezberdintasunak eta arazoak konpontzeko ezinbesteko apustua dela ulertzen baitu, bai maila ekonomikoak, baita sozialean eta ingurumenarenean ere.



Hala, 2030 Agendan jasota dauden GJHen artean, batzuk lehentasunezko gisa ezarri ditu Bakea eta Elkartasuna Fundazioak, gure jardunarekin duten gertutasuna dela eta, eta planetaren alde honetan ordezkatzeko ditugun pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko ere bai. 8 GJHa bereziki. Lan Duina. Bakea eta Elkartasuna Fundazioan «garapen jasangarriko motor» gisa ulertzen dugu, honako hauengatik:



Pobrezian bizi diren pertsonak duten baliabiderik garrantzitsuenak dira beren lana eta modu produktiboan lan egiteko duten gaitasuna. Hargatik da lan duina, babes soziala barne, pertsonak, komunitatek eta herrialdeak pobreziatik ateratzen laguntzeko bide nagusia.



Emakumeen ahalduntze ekonomikoa ezinbestekoa da genero berdintasuna lortzeko. Emakume gehienek independentzia ekonomikorako eta duintasunerako iturri nagusia lana da. Ezinbestekoa da, hortaz, laneko genero-arrakalak murriztea eta emakume guztientzako lan duina eta lan berdinarengatik soldata berdina bermatzea genero berdintasuna lortzeko.



Pertsonen eta beren senideen lan duinari, bidezko sarrera bat izateak duen lehentasunari, lantokiko segurtasunari eta babes sozialari esker, diru sarre-
ren, aberastasunaren eta eragin ekonomikoaren arrakalak murriztuko
lirateke.



Klima-aldaketaren aurkako ekintzak lan-munduaren parte-hartze aktiboa beharko du, eta, neurri handi batean, Lan Duinaren Programa aplikatzearen onura izango du, «Guztionezko jasangarriak diren ekonomia eta gizarteetara bidezko trantsizioa egiteko politika-gidalerroak» ezartzea barne.



Ezinbestekoak dira gizarte justu eta baketsuetara bidean, eta partaidetza-erabakiak hartzeko, guztionezko lan duina sustatzen duten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak, lanaren nazioarteko arauen errespetuan oinarrituak eta elkarrizketa sozialaren bidez eratuak.



Lan-munduko elkarteak ezinbesteko eragileak dira Garapen Jasangarri berriarentzako Munduko Aliantzan. Aplikazioaren arrakastak are gehiago indartu beharko du enplegatzaileen eta langileen erakundeek gobernu-ekin eta nazioarteko bazkideekin lankidetzan aritzeko duten gaitasuna, 2030 Agendaren lan zintzoaren dimentsioak bultzatzeko.



JUVintUD, GAZTEEN AHALDUNTZERAKO PAUSO BAT GEHIAGO

2030 Agenda gure ekintzen ardatzetako bat dela kontuan izanik, 2019 eta 2020 urteetan «#TbTransformamos. Gazteak eta gizarte konpromisoa» proiektua egin genuen, Nafarroako Gobernuaren babesarekin (2019-2020), Iruñeko Udalaren babesarekin (2019) eta Nafarroako Parlamentuaren babesarekin (2020). Proiektu horren helburua izan zen nafar gazteen artean 2030 Agendaren berri ematea. Era berean, kontzientzia sortu nahi zuen Agenda hori ezartzeko eta hura lortzeko behar den eraldaketa sozialean gazteek duten zeregin aktiboaz.


2021ean, pauso bat harago joan ginen, eta 8 GJHarekin konprometitu ginen bereziki: Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa. Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Parlamentuaren babesarekin «GAZTEAK ETA ETORKIZUNA. Lan Duinaren aldeko Kanpaina» proiektua abiatu genuen. Proiektu honen helburua izan zen nafar gazteen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzea, Lan Duinaren alorrean, gazteek berek gidatutako nazioarteko sentsibilizazio kanpaina baten bitartez.

Proiektu horietan lortutako emaitzak, ondorioak eta ezagutzak aztertuta, Bakea eta Elkartasuna Fundazioak apustu egiten du, beste urte batez, nafar gazteekin eta gazteentzat 2030 Agendan lan egiten jarraitzeko, bereziki 8. GJHan: Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa.

LAN DUINA GARAPEN JASANGARRIRAKO MOTORRA

LANEren arabera, «Lan duinak adierazi nahi du, mundu globalizatuan, lan ona edo enplegu duina izan beharko lukeena. Norberaren gaitasunak duintzea eta garatzea ahalbidetzen duen lana ez da edozein lan; ez da egokia oinarrizko lan-printzipio eta -eskubideak errespetatu gabe egiten den lana, ez eta genero-bereizkeriarik edo bestelako bereizkeriarik gabe egindako ahaleginarekiko bidezko eta proportzionala den diru-sarrera ahalbidetzen ez duena, ez gizarte-babesik gabe egiten dena, ezta elkarrizketa soziala eta tripartismoa baztertzen dituen ere».

Definizio horretan oinarriturik, Bakea eta Elkartasuna Fundazioak honako baldintza hauek ezarri ditu lana duina izan dadin:



• **LAN-PRINTZIOAK ETA BALDINTZAK:** LANeren Adierazpenaren arabera, lanaren oinarritzko printzipio eta eskubideei eta horien jarraipenari buruzkoa. Lanaren Nazioarteko Biltzarraren 86. bileran (1998) adostutakoa honako hauek izan ziren:

- Batzar- eta sindikatu-askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubide efektiboa.
- Bortxazko eta behartutako lanaren molde guztien deuseztatzea.
- Haurren lanaren indargabetze efektiboa.
- Enpleguari eta okupazioari dagokionez, bazterkeriaren deuseztatzea.
- Lan-ingurune segurua eta osasungarria.

• **GAITASUNEN GARAPENA:** Pertsonak ahalduntzen dituzten eraldaketez ari gara. Lanak langileei aukera eman behar die haien gaitasunak garatzeko.

• **LANA SORTZEA:** Enplegurik gabe ezin da Lan Duinik izan. Langileok lan egin behar dugu diru-iturriak izan ditzagun, eta gure oinarritzko beharrak ase ditzagun. Horregatik, garrantzitsua da denentzako lana egon dadila, eta lan hori duina izan dadila.

- **GIZARTERATZEA:** Lan duinaren ondorioetako bat da gizarteratzea. Horregatik, gaur egun, lanak gizarte-harremanen eta estatusen antolaketan eragina izaten segitzen du.

- **GIZARTE ELKARRIZKETA:** Lan Duinaren hiru zutabeak hauek dira: langileen elkarteak, gobernuak eta enpresa-elkarteak. Ezin dira lan baldintza justuak, lan duina eta garapenaren bermea lortu hiru eragile horien onarpenik eta ahaleginik gabe. Elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa ezinbestekoak dira gizarte-kohesioa bermatu nahi badugu eta emakumeek eta gizonek lan duina eta produktiboa lortzeko oinarriak finkatu nahi baditugu, askatasun-, berdintasun-, segurtasun- eta giza duintasun-baldintzetan.

- **NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA:** LANEren arabera, negoziazio kolektiboa gizarte elkarrizketaren ezinbesteko tresna da. Izan ere, haren bitartez enplegatzaileek eta beren erakundeek, sindikatuekin batera, bidezko soldatak eta lan-baldintza egokiak adostu ditzakete. Gainera, lan-harreman onak egon daitezten oinarri-zkoak dira. Negoziazio-programetan egon ohi dira soldatak, lan-orduak, formakuntza eta lanbide-gaitasuna, laneko segurtasuna eta osasuna eta tratu-berdintasuna.

- **BERDINTASUNA:** emakumeek, migratzaileek eta talde zaurgarriek pairatzen duten bazterkeria murrizteko ezinbestekoa da gutxieneko soldatak, negoziazio kolektiboa bermatzea eta bazterkeriaren kontrako neurriak aplikatzea.

- **SOLDATA JUSTUA:** Soldata gisa ulertzen badugu langileek egindako lanarengatik jasotzen duten ordainsaria, esan dezakegu hori bera elementu garrantzitsua dela pobrezia kontrako borrokan. Lan Duinak lan-baldintzak defendatzen ditu, zeinak gutxieneko bizi-soldata bermatzen baititu, langilearen nahiz familiakoen behar sozialak, materialak eta kulturalak asetzeko aski direnak.

- **SEGURTASUNA:** Laneko segurtasunak eta osasunak esan nahi dute lanera joandako langilea etxera baldintza fisiko eta psikiko berdinetan itzultzen dela. Lanak ez du osasunerako arriskua izan behar, eta horregatik, garrantzitsua da langileen izan ditzaketen lan-istripuak edo osasun-arazoak arautzen dituen legeria.

- **BABES SOZIALA:** LANEren datuen arabera, munduko biztanleen % 47k baino ez du behar bezalako babes soziala. Denok behar dugu gizarte-arriskuen eta ziurgabetasunaren aurkako babesa, besteak beste, gaixotasunen, amatasunaren, desgaitasunen, lan-istripuen, langabeziaren eta zahartzaroaren ondoriozko lan-diru-sarrerarik ezaren, arreta medikoa jasotzeko aukerarik ezaren, familiaren edo gizartearen laguntza eskasaren, edo pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren ondoriozkoak.

Babes sozial eraginkorrak bermatzen ditu bidezko hazkundera, egonkortasun soziala eta produktibitate handiagoa. Gainera, pertsonen oinarrizko eskubidea da eta Lanaren Nazioarteko Legeek eta Nazio Batuek aitortzen dute.



KANPAIA: DENTZIA, GAZTEAK ETA MIGRAZIOAK

Produkzio-enplegua eta Lan Duina globalizazio justua lortzeko eta pobrezia murrizteko ezinbesteko faktoreak dira. Gaur egun, ordea, 2008ko finantza- eta ekonomia-krisiaren ondorioz, zeina COVID pandemiak eragindako krisiak areagotu baita, eta gainera Ukrainako gerraren kalte-ordain ekonomikoak eragin ostean, gero eta zailagoa da horiek lortzea, bereziki gazteentzat.

ZERGATIK KANPAINA HAU?

LANEren datuek adierazten dute mundu osoko gazteak direla, inongo bazterkeriarik gabe, Lan Duinik ezaren ondorioak gehien pairatzen ari direnak:

- Europan eta Asia Erdialdean, iraupen luzeko langabeziak gazteen lan-perspektibak kaltetzen ditu eta gaitasun berriak garatzeko gaitasuna zailtzen du.
- Asian eta Pazifikoan, familiako sarrera urriek eta hezkuntzara sartzeko zailtasunek lan informalean aritzera bultzatzen dituzte gazteak. Genero-arrakala handitu egin da Asia ekialdean eta hego-ekialdean, baita Pazifikoan ere.
- Ipar Amerikan, zahartzen ari diren belaunaldiak direla eta, ziurgabetasuna zabaldu da lan-merkatuetan eta eragin zuzena du gazteen perspektiba ekonomikoetan eta lan-baldintzetan.
- Ekialde Hurbilean eta Afrikako Iparraldean, gazteen langabezia-tasa munduko altuena da. Oso zaila da, gainera, emakumeak lan-munduan sartzea.
- Sahara Azpiko Afrikan, gazte asko dago eta asko lanean ari diren arren, beste asko langabezian daude, lanik ez dutenen tasa egonkorra da hala ere. Era informalean besterik ezin dute lan egin emakumeek eta gizon gazteek Sahara Azpiko Afrikan.
- Latinoamerikan eta Karibbean, asko dira lan informaletan ari diren gazteak, eta kezka-politikoa eragin du horrek. Generoen artean ezberdintasun ugari daude, eta emakume gazte gehienek ez dute ez lanik ezta ikasketarik ere.

Lan Duinik ezaren arazoak ezberdinak dira munduko txoko bakoitzean. Hala ere, mundu mailan:

- 68 milioi emakume eta gizon gazte lan bila dabilta.
- 123 milioi gaztetik gora lanean diren arren, pobrezian bizi dira.
- Munduko gazteen bosten batek ez du ez lanik, ez ikasketarik, eta ez dute formakuntzarik jasotzen.



Asko dira beren jaioterriak arrazoi hori dela eta uzten dituztenak. LANEren datuen arabera, munduko migratzaile guztien (232 milioi) % 10 gaztea da, eta, mugikortasun handiena duen gizarte-taldea izanik, urteko migrazio-desplazamendu gehienak haienak dira.

Nazioarteko migrazioak aukera bat dira gazteen bizitzak berak, baita beren familienak ere, hobetzeko. Era berean, hezkuntza xedea izan dezaten, konpetentziak hobetu, lan-perspektibak izan ditzaten edota garapen pertsonala asebetu dezaten ere balio du. Izan ere, atzerrian bizitzean abenturei eta arazoei aurre egin behar zaie.

Baina, bestalde, gazteen migrazioa gertatzen den testuinguruan, gazteen langabezia tasa altua dago, eta xede herrialdeetan ez da lan duinik sortzen. Gazteen langabezia tasak, gutxienez, bikoiztu egiten du tasa orokorra. LANEren datuen arabera, 73 milioi gaztek ez du lanik.

Horrexegatik, gazte migratzaile asko harrapatuta geratzen da maiz esplotatzen eta tratu txarrak ematen zaizkien lanetan, bortxazko lana barne. Gainera, sarriegi —eta beste migratzaileen modura ere—, gizarte- eta ekonomia-sistemen hutsuneen errudun bihurtzen dituzte.

Horregatik guztiagatik aldarrikatu behar da Lan Duina, eta bereziki, gazteei dago-kienez. Enplegu osoa eta produktiboa eta guztiontzako lan duina dira, baita emakumeentzat eta gazteentzat ere, pobreziatik ateratzeko biderik eraginkorrenak. Estrategia ekonomiko eta sozial zabalago batean integratzen da, dezelerazioa saihesteko, susperraldia sustatzeko eta bidezko globalizazio bati forma emateko.

Hala, deskribatutako testuinguruan, Bakea eta Elkartasuna Fundaziotik, CCOOko Gazteen Idazkaritzak eta Lan Duinaren aldeko Kanpainaren Gazteen Batzordeak berretsi egiten dute Lan Duinak, 2030 Agendako GJHak, pertsonen lan-egoerarako nahiak biltzen dituela. Azken finean, Lan Duinak esan nahi du aukera izatea honako hauetarako: diru-sarrera justua, segurtasuna lantokian eta familientzako gizarte-babesa, garapen pertsonalerako eta gizarteratzeko aukera hobek, pertsonen beren iritziak adierazteko, beren bizitzetan eragina duten erabakietan antolatze eta parte hartze askatasuna, eta guztiontzako, emakumeentzako eta gizonentzako aukera- eta tratu-berdintasuna sortuko dituen enplegu produktibo bat lortzeko.

Gainera, eta aurreko proiektuetan izandako esperientzien arabera, bada kolektibo garrantzitsu bat 8 GJHaren alde elkarlanean aritzeko, eta horren inguruko ikuspegia aberasteko. Kolektibo hori Nafarroan bizi diren gazte migratzaileek osatzen dute. Horregatik, JUVintUD proiektuan, funtsezkoa da pertsona horiek herrialde pobretuen lan-errealitatearen ikuspegian eman dezaketen ikuspegia txertatzea, bai eta egungo garapen-ereduak beren herrialdeak uztera behartzeko dituen arrazoiak ere.



JUVintUD PROIEKTUA. FASEAK ETA JARDUERAK

«JUVintUD. Lan Duinaren aldeko Nazioarteko Kanpaina, migrazioaren ikuspegitik» izeneko proiektuak hiru fase izan ditu:

1. KONTZEPTUALIZAZIOA

Fase honen helburua zen honako hauek ezartzea: zer den Lan Duina, txiroturako herrialdeetan zein den Lan Duinaren egoera, eta Nafarroako gazteen artean Lan Duina aztertzea, gazte migratzaileen egoerari arreta berezia eskainita. Hori egiteko, ekintza hauek izan ziren:

1. Gazteak, Lan Duina eta Migrazioak nazioarteko jardunaldiak.

Abenduaren 20an, Bakea eta Elkartasun Fundazioak jardunaldiak antolatu zituen Civivox Kondestablean, honako gai hauen inguruan jarduteko:

- LAN DUINA ETA MIGRAZIOAK. José Antonio Moreno. CCOOren Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteko kontseilaria.
- LAN DUINA ETA SINDIKALISMOA AFRIKAN. Alejandra Ortega. Arabiar Herrialdeetako, Afrikako eta Asiako arduraduna
- Eta CCOOko kontseilaria LANEn.
- GAZTEAK ETA LAN DUINA LATINOAMERIKAN ETA KARIBEAN. Roberto Zaldaña. Salvadorreko Erakunde eta Sindikatu Independenteen Federazioaren (FEASIES) koordinatzailea.
- MIGRATZAILE GAZTEAK NAFARROAN. Marga Ramos. Ikaskide-ko Orientazio-Zerbitzuaren koordinatzailea.

2. Gazteek Lan Duina lortzeko izan dituzten bizipenen trukaketa-saioa.

Dinamiken eta talde-lanen bidez, gazte nafarrek eta immigranteek lanak duina izateko behar dituen elementuak eta baldintzak izan zituzten hizpide. Gainera, lan-esperientziak trukatu zituzten, haienak zein beste batzuenak. Hartara, lana duina izan zedin bete beharreko baldintzak eta elementuak betetzen zituzten identifikatzeko.





2. KANPAINAREN DISEINUA

Fase honen helburua zera zen: Nafarroan bizi diren gazteek, bertakoek nahiz migratzaileek, Lan Duinaren inguruko kanpaina diseinatzen parte hartzea, ikuspegi migratzailea ematen ziotelarik. Horretarako, gazteek osatutako batzorde batean parte hartzera gonbidatu genituen, Ignacio Jovtisekin, Aldaketaren Teorian adituarekin, eta Idoia Ortaberekin, Bakea eta Elkartasuna Fundazioko teknikarekin.

Aldaketaren Teoriak pentsamendua antolatzen laguntzen digu, baita, era abstraktuak eta ezagutzetatik nahi esperientzietatik, nahi dugun aldaketa gauzatzeko baldintzak ezartzen ere. Hau da, eraldaketa soziala, testuinguru jakin batean.

Kanpaina diseinatzeko gazteen batzordea 9 aldiz bildu da. Hauek dira bileretan ezarri dituen elementuak:





3. KANPAINA MARTXAN JARTZEA

GAZTEAK, LAN DUINA ETA MIGRAZIOAK ERAKUSKETA.

Erakusketa honen bitartez, gazteek Lan Duina lortzeko, eta horrenbestez, bizi-proiektua osatzeko, izaten dituzten arazoak berri izan dute Nafarroako herri-tarrek. Era berean, Lan Duinaren ezinbesteko elementuak zeintzuk diren ere eza-gutu dituzte.

Nafarroako 10 herritan izango da ikusgai: Burlata, Castejón, Lizarra, Iruñea (Kon-destable Civivoxa, Arrosadia Civivoxa eta Jus la Rocha Civivoxa), Azkoien, Gares, Ribaforada, Tafalla, Tuteria, Ultzama.

GAZTEAK, LAN DUINA ETA MIGRAZIOAK ESCAPE ROOMA.

Jarduera honetan, bizipenetan oinarritutako metodologia ludiko baten bidez (Escape Roomak), Nafarroako gazteek gazte migratzaileek dituzten zailtasunekin lotutako erronkak gainditu behar zituzten; jatorrizko herrialdean hasi, eta Nafa-rroara iritsita, Lan Duina lortzen saiatzen diren arte.

SARE SOZIALETAKO ETA HEDABIDEETAKO KANPAINA.

Gaur egun, sare sozialak erabiltzen dituzte gazteek elkarrekin harremanetan ego-teko, informatzeko eta abarretarako. Horregatik ezinbesteko elementua izan da kanpaina honetan.

PROIEKTUAREN EMAITZAK

JUVintUD proiektuaren helburu nagusia da Nafarroan bizi diren gazteen ahal-duntzea eta parte hartzea sustatzea, Lan Duinari dagokionez, eta ikuspegi migratzailearekin. Horretarako gazteek zuzendutako sentsibilizazio kanpaina bat egin behar zuten.

Proiektua gauzatu bitartean, informazioa jaso da hainbat bitartekoren bidez, aurreikusitako emaitzak lortzen ari ote ziren jakiteko.

Jarraian, 2023ko otsailaren 28an jasotako emaitzak ¹:

LAN DUINA ZER DEN EZAGUTZEA:

Lan Duina zer de ezagutzea ezinbestekoa da norberaren eskubidek urratu dituzten jakiteko. Hainbat ekintza jarri dira martxan Lan Duina zer den definitzen eta azaltzen dutenak. Horregatik, Lan Duinaren inguruan zuten ezagutza handitu ote den galdetzean, baietz erantzun zuten pertsonen portzentajeak honako hauek izan dira:

- ESPERIENTZIAK TRUKATZEA. **100%**
- ERAKUSKETA. **96,9%**
- ESCAPE ROOMA: **92,3%**

GAZTEEK LAN DUINERA HELTZeko DUTEN ZAILTASUNEN ETA PROBLEMATIKAREN INGURUKO KONTZIENTZIAZIOA, MAILA GLOBALEAN NAHIZ BERTAKOAN.

Proiektuak ikuspegi migratzailea du, eta beraz, funtsezkoa zen gazteek herrialde pobretuetan pairatzen duten lan-eskubideen urraketa migrazioaren faktore gisa ulertzea. Gai honen inguruko ezagutza handitu dutela adierazi duten pertsonen portzentajeak hauek dira:

- JARDUNALDIA: **100%.**
- ERAKUSKETA: **96,9%**
- ESCAPE ROOMA: **80,4%**

GAZTEEN PARTE HARTZEA LAN DUINAREN ALDEKO KANPAINAREN DISEINUAN ETA JARDUERETAN.

JUNintUD proiektuak Nafarroako gazteek kanpainaren diseinuan parte hartzeko helburua zuen, hau da, gazteek egindako eta gazteentzako kanpaina bat izatea. Kanpaina honetan 9 gaztek parte hartu dute. 6 gizonezkoak eta 3 emakumezkoak. Horietatik, 3, jatorri migratzailekoak ziren, eta beren ekarpena ezinbestekoa izan da kanpainari migrazio-ikuspegia txertatzeko.

1. JUVintUD proiektuaren epemuga 2023ko martxoaren 31 da. Hala ba, txosten hau idatzi bitartean, martxan dabil oraindik ere proiektua. Beraz, emaitzen adierazleak zertxobait alda daitezke bukaerako emaitzekin.

IKASKETA

Bakea eta Elkartasuna Fundazioak eta kanpainaren gazteen batzordeak JUVin-tUD proiektua gauzatzean egindako azterketen eta hausnarketen bidez, gazteen lan-prekarietatearen arrazoiei buruzko hainbat ikaskuntza lortu ditu. Hona hemen horien artean azpimarragarrienak:

LAN DUINA ETA MIGRAZIOAK. Lan Duinik eza emigrazio arrazoia da.

Maroko, Ekuador eta Kolonbia dira Nafarroan errolatutako migratzaileen jatorrizko herrialde nagusiak. Arrazoiak arrazoi, herrialde horietako merkatuaren egoera kontuan hartzeko modukoa da:

- Maroko: Lanaren eta Ekonomiaren Ministerioaren arabera: «Marokoko lan-merkatuan, enplegu informala eta ekoizpen baxua dira nagusi, kualifikazio gutxiko enplegua dago, eta nekazaritza-sektoreak biztanleria aktiboaren % 40 okupatzen du».
- Ekuador: Ekuadorreko Lanaren Ministerioaren arabera, herritarren % 31k sektore informalean egiten du lan, eta soilik % 19k jasotzen du gutxieneko soldataren modukoa edo handiagoa.
- Kolonbia: Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, sindikatuen kontrako indarkeria da Kolonbian sindikalista izateko munduko herrialderik arriskutsuenetakoa, baita Latinoamerikan sindikatu gutxien dituenetako bat ere.

GAZTEAK ETA LAN DUINA NAFARROAN. Gazteak eta prekarietatea, txanponaren alde berean daude.

Nafarroako gazteen lan-egoera, honako hauek ezaugarritzen dute:

- Lan-merkaturatze berantiarra eta enplegua lortzeko zailtasunak.
- Prekarietatea lan-baldintzetan: behin-behinekotasuna, herritarren batz bestekoaren oso gaineratik dagoen lan partziala, Nafarroako batz besteko soldatekiko % 50eko arrakala eta istripu tasa handia.
- Baldintza horiek are larriagoak dira gazte migratzaileen kasuan, izan ere zailagoa baitute lanerako sarbidea, bertako langileekiko soldata arrakala % 32koa da; atzerritarren pobrezia erlatiborako arriskua % 58,9koa da, Espainiako biztanleen % 16,3aren aldean (Nafarroako pobrezia eta gizarte ezberdintasunen V txostena; Errealitate Sozialaren Behatokiaren urteroko txostenak, OBRS, 2021).

GAZTEEN LAN-PREKARIETATEAREN ARRAZIOAK (IKUSPEGI MIGRATZAILEA)

- Gazteek ez dituzte Lan Duinerako baldintzak ezagutzen. Hori dela eta, ezin dituzte beren eskubideak aldarrikatu.
- Gazteek normalizatu egin dute, gazte izate hutsagatik, baldintza prekarioak onartzea.
- Eskola-porrota migratzaileen artean.
- Migratzaileek pobrezia altuagoa bizi du, eta, horrenbestez, lan egitea nahiago izaten dute ikastea baino. Zailtasun handiagoak izaten dituzte,

beraz, lan-baldintza hobekak dituzten lanak lortzeko.

- Gazte migratzaile askok ez du lagunarrik ez familia-sarerik eta lana aurkitzea zailtzen die horrek.
- Aniztasun kulturala enpresa-munduan pizgarri positibo gisa ez hartzea.

Ondorioz, Bakea eta Elkartasuna Fundazioan uste dugu ezinbestekoa dela Lan Duinaren ezagutza Nafarroako gazteen artean zabaltzea. Horrez gain, lan-eskubi-deen garrantzian kontzientzia sortzea ere garrantzitsua da, arazorik balego, erreklamatu ahal izateko. Bestetik, gaztaroa ez litzateke izan behar lan-prekarietatearekin lotutako garaia. Hala ba, prekarietate handiena duten jardueretan, sarri gazteek, emakumeen eta migratzaileek egiten dituzten lanetan, lan-baldintzak hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke. Gainera, herritar zaurgarrienak babestu beharko lirateke lanbide- eta unibertsitate-formazioan. Azkenik, aniztasun kulturalaren abantailen inguruan kontzientziatu beharko litzateke gizartea.



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna

navarra-nafarroa

